

Diru-laguntza



Babeslea



Lankidetzak



Agencia de Protección de Datos
de la Comunidad de Madrid



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Comisión
de Libertades
e Informática

CLI - PROMETEO Proiektua

*Informazioaren eta
Komunikazioaren Teknologia
Erabiltzeko Eskuliburu Praktikoa*

9 - 11 urte

Galdetegiak egin dira Hezkuntza Ministerioak eta Andaluzia, Katalunia, Euskadi, Extremadura eta Madrileko erkidegoetan, dagozkien sailek lagunduta.

CLIren Zuzendaritza-taldea:

Elkartearen Zuzendaritza.

CLI-PROMETEO proiektuaren Zuzendaritza-taldea:

Antoni Farriols, José Manuel Ferrer, José Carlos Vaquero.

Lege-aholkularitza:

Carlos Valero, Jordi Bacaria, Lola Albo, Ernesto Quílez.

Talde informatikoa:

José Manuel Ferrer, Carlos Ramón Ferrer.

Binetak diseinatzeko laguntzaile berezia:

M^a del Carmen Labarquilla.

Bestelako laguntza teknikoa:

Javier García Álvarez.

Proiektuaren Datuak Babesteko Eskuliburuak:

9-11 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Salustiano Asencio.

12-14 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Alberto Leal.

15-17 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Débora Caballero.

Maketazioa:

Web y Media Diseñadores s.l.

Eskuliburuaren zuzendaritza:

Comisión de Libertades e Informática.

Inprimaketa:

Centro Especial de Empleo Ponce de León.

Lege-gordailua: M-53404-2008

Erregistro zenbakia M-000781/2009

Copyright © 2008

Eskubide guztiak gordeta daude. Baimena ematen dugu eskuliburua kopiaatzeko eta edozein bitarteko bidez hedatzeko, baldin eta egileak aipatzen badira eta ez bada merkataritza erabilerarik egiten eta testuan aldaketarik egiten.

Comisión de Libertades e Informática (CLI) erakundeak Datu Pertsonalen Babesaren Oinarrizko Eskubidearen alde dihardu, pertsonak, enpresak eta erakundeak jabe daitezen zein garrantzitsua den eskubide hori.

Hala nahi duten pertsonak ez ezik, CLIren partaide dira honako erakunde hauek ere:

AI: Asociación de Internautas.

ALI: Asociación de Ingenieros e Ingenieros Técnicos en Informática.

APDHE: Asociación Pro Derechos Humanos de España.

FADSP: Federación de Asociaciones de Defensa de la Sanidad Pública.

UGT: Unión General de Trabajadores.

CLI PROMETEO Proiektua 2008/09

CLIk garatzen du CLI-PROMETEO proiektua, haur eta gazteei zuzendua, eskolatik bertatik sustatzeko informazio-teknologiaren erabilera, eta,aldi berean, datu pertsonalen babesaren inguruan kontzientziatzeko ere.

Aurkibidea

Kapitulua	Edukia	Helburuak	Jarduerak	Orr.
Sarrera.	Eskuliburuaren aurkezpena.	Informazioaren teknologien (IT) erabilera eta datu pertsonalen erabilera egokia bultzatzea eta sustatzea.		3
1. kapitulua Nire zaletasunak neuk aukeratzen ditut.	Gazteen lehentasunak ITak erabiltzerakoan.	Eskura dituzten denbora-pasa ugarietz hausnarraraztea.	Zer egingo zenuke?	5
2. kapitulua Internetera konektatzeko leku bila.	Interneten erabilera: konektatzeko tokia.	Jakinaraztea zein garrantzitsua den Interneten konektatzeko aukerak hartzen dituen tokia.	Zer egingo zenuke?	7
3. kapitulua Internetera konektatuta nagoen denbora kontrolatzen.	Interneten erabilera: konexio-denbora.	Jabearaztea garrantzitsua dela jarduera askotan aritzeko denbora hartu behar dela.	Zer egingo zenuke?	9
4. kapitulua Bakarrik edo beste norbaitekin?	Interneten erabilera: norekin daude gazteak konektatzen direnean?	Jabearaztea ordenagailua neurritz kanpo erabiltzeak isolatzea ekar dezakeela.	Zer egingo zenuke?	11
5. kapitulua "Harrapatuta" geratzeko arriskua.	Gazteek ITekiko duten atxikimendua.	Aztertzea familiarekin erabilera-arauak adostu behar ote diren, eta arau horiek bete.	Zer egingo zenuke?	13
6. kapitulua Nire lehentasunak Interneten edo sakelako telefonoarekin.	Internet edo sakelako telefonorako kontsumo-arauak: informazioa, aisia, harremanak, merkataritza-erabilerak.	ITak erabiltzean gerta daitezkeen arrisku eta gatazken berri ematea.	Zer egingo zenuke?	15

Kapitulua	Edukia	Helburuak	Jarduerak	Orr.
7. kapitulua Beste batzuekin nago harremanetan.	Harreman pertsonalak Internet bidez.	Harreman pertsonalak lehenestea online harremanen gainera.	Zer egingo zenuke?	17
8. kapitulua Ustekabeko mezua.	Gazteei heltzen zaien informazioa Interneten eta sakelako telefonoaren bidez.	Izan litezkeen arrisku-egoerak bereiztea eta horietan jokatzeko laguntza eskaintzea.	Zer egingo zenuke?	19
9. kapitulua Erosketa Interneten bidez.	Interneten edo sakelako telefonoaren merkataritza-erabilera.	Adin batzuetan Interneten bidez erostea zein arriskutsua izan daitekeen jabeaztea.	Zer egingo zenuke?	22
10. kapitulua Neuk esango dut nire datuak nori eman.	Datu pertsonalak eta haurrek zein erraz ematen dituzten horiek. Irudia datu pertsonal gisa.	Datu pertsonalei dagokienez, jabeaztea beharrezkoa dela intimitatea babestea.	Zer egingo zenuke?	24
11. kapitulua Arazo bat daukagu.	Datu pertsonalak gaizki erabiltzeak ekar litzakeen gatazkak.	Datu pertsonalak ondo erabiltzen trebatzea.	Zer egingo zenuke?	26
Auto-ebaluazioa.	Eskuliburuan aurkeztutako jardueretan emandako erantzunen balorazioa.	Informazio-teknologiak nola ari diren erabiltzen jakinaraztea.	Galdetegia.	28
Aholkuen sintesia.	Eskuliburuan azaldutako aholkuen aukeraketa.	Hurrei aukera eskaintzea Eskuliburuko aholku batzuk zuzenean kontsultatzeko.		29
Familia eta hezitzaileentzako aholkuak.	Eskuliburuan azaldutako aholkuak egokituta eta sakonduta.	Guraso eta hezitzaileei aukera eskaintzea jarraitzeko neurri batzuk, bermatuko dutenak ITen erabilera egokia.		30

ZEIN DA ESKULIBURU HONEN GAIA?

Eskuliburu hau argitaratu da 9-17 urte bitarteko zortzi mila ikasleren azterketa bat egin ondoren; honekin batera badira beste bi gehiago, neska-mutil zaharragoentzat. Eskuliburuak azaltzen du nola erabiltzen dituzuen Informazioaren Teknologia 9-11 urte bitarteko gazteek. Informazioaren teknologia diogunean, esan nahi dugu bideojokoak, MP3a, MP4a, sakelako telefonoak, ordenagailuak, Internet... Badakigu tresna horiek zuen denboraren zati handi bat betetzen dutela. Horrexegatik jarri dugu, hain zuzen ere, eskuliburu hau zuen eskutan; nahiko genuke alderdi garrantzitsu batzuk ulertzeko baliagarria izatea.

ZEIN HELBURU DU ESKULIBURU HONEK?

- Lehenik eta behin, zuen interesekoak diren gaiei buruzko informazioa ematea. Hau da, zuen adineko beste gazteek nola darabiltzaten informazio teknologia jakinaraztea.
- Bigarren, laguntzea ondo erabil ditzazuen bai Internet eta bai sarearen bidez eta sakelako telefonoaren bidez eskatzen edo ematen den informazioa ere.
- Azkenik, azaldu nahi dizuegu zein garrantzitsuak diren zuen datu pertsonalak (izena, helbidea, telefonoa, argazkia, telefonoarekin egindako grabazio bat...), egoki erabil ditzazuen.
- Eta, hori guztiori, Eskuliburua guraso eta irakasleekin batera aztertuta.

ZER KONTATUKO DIZUEGU?

Eskuliburua hamaika kapitulutan dago banatuta. Eta kapituluek launa atal dituzte. Honakoak dira:

1. **PROTAGONISTAK:** fikziozko bi pertsonaiaren bidez, Nerea eta Martin, egoera errealak aurkeztuko ditugu. Egoera horiek aurkitu ditugu egindako galdetegietan, eta gertatu zaizkie 9 eta 11 urte bitarteko neska-mutilei.
2. **ZER EGINGO ZENUKE?:** atal honetan jarduerak proposatzen dizkizuegu, protagonistek edo zuek zeuok izan dituzuen bizipenei buruzko iritzia eman dezazuen.
3. **ZENBAIT DATU:** atal honetan erakutsiko ditugu zenbait datu kapituluaren gaiarekin zerikusia dutenak. Datuak lortu dira zuen adinekoei eta neska-mutil zaharragoei zenbait erkidegotan egindako zortzi mila galdetegietan.
4. **AHOLKUA:** kapituluan aurkeztutako gaiaren inguruko aholkuak ematen ausartu gara.

Eskuliburuaren bukaeran zuen ekarpenak aztertu ahal izango dituzue prestatu dugun galdera-sorta baten bidez. Ea zuen gustukoa den. Bada beste atal bat ere, familiari eta hezitzaileei aholkuak emateko.

1. kapitulua

NIRE ZALETASUNAK NEUK AUKERATZEN DITUT (ORDENAGAILUA, SAKELAKO TELEFONOA, MP3, MP4...)


PROTAGONISTAK

Aurkez ditzagun, lehenik, Nerea eta Martin, poliki-poliki ezagutuz joango garen bi ikaskide; bi lagun horien bidez oso gai interesgarriak aurkeztuko dizkizugu.

Nereak 10 urte ditu, alaba bakarra da eta Lehen Hezkuntzako 5. maila ari da bukatzen. Arratsaldero ateratzen du paseatzera Putz, setter irlandar zoragarria. Ondo kostata lortu zuen gurasoek txakurra erostea, eta bide bakarra du haserretu ez daitezen: egin beharreko lanetan laguntzea. Nerea ikasle ona da, baina ikaskide batzuek ez dakite nola lortzen duen, izan ere urtebetetze-festa guztietara joaten da, eta zinera edo burger batera joateko geratzen badira, ez du behin ere aukera galtzen.

Martinek 11 urte ditu, eta Lehen Hezkuntzako 6. maila ari da bukatzen. Egun osoa dago bere anaia zaharrak zer egiten duen zain. Anaia zaharra Imanol da, eta etengabe ari da ordenagailuan edo musika entzuten. Imanolek beharko luke arduratsua izan, baina gurasoak behi eta berriz ari zaizkio errietan, ez baitu esanik betetzen eta ez du batere ikasten. Martinek arazorik gabe gaintzen ditu ikasgaiak, baina jende guztiak esaten dio nota hobeak lortu zitzakeela.

Gainerako neska-mutil guztiei bezala, gure ipuin honetako protagonistei jolas batzuk gustatzen zitzaizkien txikiak zirenean, baina urteak aurrera joan ahala, aldatu egiten dira zaletasunak. Txikitan biek eduki zituzten Tamagotxiak; orain, berriz, ordenagailuan jolasten dira; gauzak aldatu egin dira. Lehen autoekin aritzen ziren, pista biribiletan, eta orain bideojokoan jolasten dira auto-lasterketetan. Baina adin guztietan dibertitu dira eskuartean eduki dutenarekin, zu bezala.



Gaur egun, Nereari MP3an musika entzutea eta txakurra kalera ateratzea gustatzen zaio gehien. Martinek *Messengerrean* (bat-bateko mezularitza-programa) sartzea du gustuko, lagunekin eta anaiaren lagunekin ere hitz egiteko. Anaiaren lagunak ez diote kasurik egiten eskolan, baina *Messengerra* beste kontu bat da.

ZER EGINGO ZENUKE?

Atal honekin hasteko, oso ariketa erraza proposatuko dizugu: pentsa ezazu gurasoei lagundu behar diezula laneko bidaia garrantzitsu batera; hilabete, 30 egun!, pasa beharko duzu inor ere ezagutzen ez duzun leku batean, ez duzu Interneten sartzeko aukerarik izango, baina hiru aukera hauetako batean dagoen sorta osoa eraman ahalko duzu. Zein sorta aukeratuko zenuke?:

- A.** Ordenagailua (Internetarako konexiorik gabe) hamar bideojokorekin, MP3a grabatuta dituzun gustuko kantuekin eta bizikleta.
- B.** MP3a grabatuta dituzun gustuko kantuekin, gustukoen dituzun 3 mahai-jokoak eta bizikleta.
- C.** Ordenagailua (Internetarako konexiorik gabe) hamar bideojokorekin, sakelako telefonoa, deitzeko edo mezuak bidaltzeko 50 euroko saldoa duena, eta DVDa (Bideo digitaleko diskoa), gustukoen dituzun 10 filmekin.

ZENBAIT DATU

Gure ikerketaren (sarreran aipatu dizugu) emaitzek diotenez, 9-11 urte bitarteko neska-mutil gehienek nahiago duzue ordenagailua eta sakelako telefonoa erabili, MP3, MP4 edo argazki-kamera baino (%74k ordenagailua erabiltzea eta %43k MP3 edo MP4 erabiltzea).



AHOLKUA

Informazioaren teknologiak onak dira, baina horien erabilera kaltegarria izan daiteke. Elikadurarekin gertatzen den bezalaxe, gure aisian osasuntsuena aniztasuna da; jarduera bakarrean gehiegi aritzea kaltegarria izan daiteke. Hurrengo orrialdeetan sakonduko dugu gai hauetan.

2. kapitulua

INTERNETERA KONEKTATZEKO LEKU BILA

PROTAGONISTAK


Nereak eta Martinek arazo bera dute, eta baliteke zeuk ere arazo hori izatea. Honakoa da:

Internetera konektatzeko bakarrik egon nahi dute; hobeto esatearren, ez dute gurasoak ondoan egoterik nahi. Gurasoak, ordea, beldur dira, eta trabak besterik ez diete jartzen: ordubete baino ez diete uzten, edo sartu diren orrialdeak kontrolatzen dituzte... Biei, Nereari eta Martini, esaten diete ez sartzeko gelan *Messengerraren* bidez hitz egiteko edo web orriak ikusteko...

Baina Nereak eta Martinek ordenagailu bana daukate gelan, eta han konektatzen dira; hala ere, batzuetan kontrol leunagoa duen lagunen baten etxera joaten dira, eta ikastera doazelako aitzakian, askeago aritzen dira.

Martinek badu lagun bat, Alex, gurasoek kontrolatzen ez dutena. Zortziak aldera etxeratzen dira lanetik, eta zaintzailea ez da kontu horietan sartzen; beraz, nahi duena egin dezake. Arratsalde batean, baina, aita goiz samar itzuli zen lanetik, eta gelan harrapatu zuen *youtubeko* bideoak ikusten, eta ez, agindu bezala, ikasten. Bideoa kezagarria zen, izan ere 12-14 urteko haur batzuk azaltzen ziren ikaskide bati segika eta barre eginez. Norbaitek grabatu eta zintzilikatu zuen sarean. Aita izugarri haserretu zen, eta Alexek esan zion bideo batzuk ikusi behar zituztela, eskola-jazarpenari buruzkoak, Tutoretzako lan bat egin behar zutelako, eta horregatik ari zela bilatzen sarean.

Hala eta guztiz ere, Alexi ordenagailua kendu zioten. Gurasoek esan zioten eurak etxean zirenean baino ezingo zuela erabili. Eta lagunak etxera ekartzea ere debekatu zioten, asteburuetan izan ezik.



ZER EGINGO ZENUKE?

Irudika ezazu honako egoera hau: Interneten informazioa aurkitu behar duzu Ingurunearen Ezagutza ikasgaien lan bat egiteko. Garatzen ari zareten gaia sexu-ugalketarena da, eta bakarkako lan bat egin behar duzu. Aukeratu hiru hauen artean:

- A.** Informazioa etxean bilatzen duzu, baina lotsa ematen dizu gurasoei galdetzea, eta laguntza eskatu diozu nebarreba zaharragoren bati (halakorik ez badaukazu, lehengusu edo lagunen bati eskatu diozu laguntzeko).
- B.** Etxean ari zara informazioa bilatzen, baina ez dakizunez nondik hasi, gurasoei eskatu diezu laguntzeko.
- C.** Nahiago duzu lagunen batekin bere etxera joan informazioa bilatzera, ez duzu beharrezkotzat jotzen helduren baten laguntza.

ZENBAIT DATU

Zure adineko oso neska-mutil gutxi konektatu ohi da Internetera etxetik edo eskolatik kanpo: hamarretik bi. Ohikoena etxetik konektatzea da, edo, aukera izanez gero, eskolatik.

AHOLKUA

Egokiena izango litzateke Interneten ibiltzea baldin eta etxean helduren bat badago, baina gurasoekin adostu beharko zenuke, edonola ere, kontu hori.

Ordenagailua zure logelan badago, ulertu beharko duzu gurasoek nahi izatea atea irekita eduki dezazun edo pantaila gelan sartzen den edonorentzat ikusgai egotea.

Halako aholkuak ematen ditu, adibidez, Espainiako Pediatria Elkarteak, hau da, zure adineko neska-mutilen osasunaz arduratzen diren medikuen elkarteak.

Informazio hau eskaini dizugu hausnarketa egin dezazun, eta nahiko genuke honako galdera hauek egitea zeure buruari:

Zergatik dira ematen dituzten, edo ditugun, aholkuak zuek nahi duzuenaren aurkakoak? Zuengan konfiantzarik ez dugulako izango ote da? Izango al da arrazoiren bat zeure buruari planteatu ere egin ez diozuna? Hurrengo orrialdeetan saiatuko gara azaltzen zergatik nahi duten gurasoek kontrolatu zuen Internet-erabilera eta zergatik ez den hori zuen askatasuna kontrolatzea edo zuenganako mesfidantza.

3. kapitulua

INTERNETERA KONEKTATUTA NAGOEN DENBORA KONTROLATZEN

PROTAGONISTAK

Nerea gure lagunak ez du denbora-mugarik Internet erabiltzeko, ez eta jolasteko edo telebista ikusteko ere. Egutero ikasten du tarte batez eta orain arte oso emaitza onak lortu ditu; horregatik, bada, inoiz edo behin izan ezik, gurasoak ez dabilkio atzetik “hau egin ezazu, beste hori ez ezazu egin...” esanez. Martini, berriz, egunean ordubete uzten diote ordenagailuan aritzeko, bai jolasten edo bai Interneten. Dena dela, anaiak gehiago erabiltzen duenez, ordubete hori gutxi gorabeherakoa da; hau da, gurasoekin ez ezik, Martinek anaiarekin ere eztabaidatu behar izaten du ordenagailua erabiltzeko.

Nereak, esan dugu, izaten ditu mugak inoiz edo behin. Halako bat gertatu zitzaion aurreko batean, eta honakoa izan zen arrazoia:

Gure protagonista zaletu egin zen gelakideekin *Messengerraren* bidez hitz egitera. Arratsalde batean hamar neska baino gehiago ari ziren elkarrizketan. Nerea ez zen konturatu afaltzeko ordua zela eta entzun ere ez zien amak egindako deiei. Ama gelara joan zenean konturatu zen Nereak bi ordu luze eman zituela ordenagailuan eta etxeko lanak egin gabe zituela. Eztabaidatu egin zuten, eta Nereak esan zion gauean egingo zituela, oheratu aurretik, eta beragan konfiantza handiagoa eduki beharko lukeela. Ez zirenez bat etorri, amak ordenagailua itzali zuen eta neskatila negarrez geratu zen, ez baitzuen lagunak agurtzeko aukerarik izan.

ZER EGINGO ZENUKE?

Beste egoera bat aurkeztuko dizugu: arratsalde batean hor ari zara, lagunak gomendatu dizkizuten kantu batzuk Internetetik jaisten. Denborak luze jo du, baina ez duzu lortu kantu horiek aurkitzea. Halako batean, gurasoek esan dizute ordenagailua itzaltzeko, denbora luzez ari zarela-eta. Eurek ez dakite zertan ari zinen, baina itzali egin behar duzu. Nola jokatu zenuke?

- A.** Zertxobait haserretuko zinateke, eta gurasoei esango zenieke gehienetan ez zarela denbora luzez egoten ordenagailuaren aurrean, eta behin muga pasatu duzula-eta, badirudiela ez dutela konfiantzarik zukan.
- B.** Gurasoei eskatuko zenieke erakusteko musika jaisten, edo lagun diezazutela zure gustuko kantuak bilatzen, horrela denbora aurreztuko duzu eta hurrengo batean ondo egingo duzu.
- C.** Erabat haserretuko zinateke, hori egitea bidegabea delako, eta, atea danbateko batez itxita, alde egingo zenuke.

ZENBAIT DATU

Bazenekien zure adineko neska-mutilen erdiak asteburuetan soilik konektatzen direla Internetera? Ordutan neurtuta, astean 4-6 ordu bitartean. Horrek esan nahi du ohikoa dela, batez bestekoa eginez gero, gehienez egunero ordu erdi bat. Zure adineko hamar neska-mutiletik bik baino ez dute muga hori pasatzen. 12 urtetik aurrera zertxobait luzeago aritzen dira sarean.

AHOLKUA

Inoiz planteatu al diozu zeure buruari txarra ote den denbora luzez egotea telebista ikusten? Inoiz planteatu al diozu zeure buruari txarra ote den denbora luzez egotea bideojokoetan jolasten? Edo zure argazkiak Internet bidez bidaltzen lagunei? Gainera, zer da denbora luzea, ordubate? Hiru ordu?

Gure asmoa ez da lerro hauen bidez esatea zer den denbora luzea bideojokoetan jolasten edo telebista ikusten edo Internetera konektatuta, baina lagundu egingo dizugu zeuk hausnar dezazun eta zeure iritzia eduki dezazun.

Egokiena izango litzateke zuk eta gurasoak negoziatzea eta adostea muga. Zeuk jakin behar duzu zer egin dezakezun eta zer ez, baina gurasoak dira zure hezkuntzaren erantzule, eta badakite zer komeni zaizun.

Bigarrenik, jakin behar duzu denbora luzea dela baldin eta egin behar dituzun beste gauza batzuk, alegia, ikasi, etxeko lanak, amarekin hitz egin, aitarekin kalera atera... egitea eragozten badizu, baina denbora luzea izan liteke denbora tarte labur bat, ez badakizu tarte horietan beste ezer egiten. Gure aisialdia jarduera askotara begira jarri behar da. Horregatik, pentsa ezazu gurasoek muga jartzen badizute ziurrenik arrazoizkoa izango dela eta zure mesederako egiten dutela.

Era argiago batez esanda: garrantzitsua da ordenagailuen erabilera egokitzea zure eskola eta ikasketa ordutegietara.



4. kapitulua

BAKARRIK EDO BESTE NORBAITEKIN?

PROTAGONISTAK

Gauza batzuk egiteko nahiago izaten dugu bakarrik aritu, baina beste batzuetarako, berriz, nahiago beste norbaitekin. Adibide bat jartzearren, Nereak bakarrik egiten ditu etxerako lanak, ingelesekoak izan ezik. Amak oso ondo daki ingelesez, eta beti laguntzen dio. Martini gustatzen zaio matematika-ariketak egiteko laguntza izatea, ez baitzaizkio gustatzen, eta lan handia ematen diote.

Kirola egin gura badugu, beste batzuekin egon behar dugu. Nereak tenisa du gustukoan. Aitak irakatsi zion txikitan, eta asteburuetan biak joaten dira. Martini futbola gustatzen zaio, eta ezin badu lagunekin partida bat jokatu, ez zaio inporta aitarekin jaistea baloiarekin aritzeko. Baina beste gauza batzuk egiteko nahiago dugu bakarrik egon, edo behintzat, gurasorik ez egotea.

Hori dela eta, Martini sortu zaion arazo bati buruz hitz egingo dugu. Anaiak lortu du Internetetik jaistea futboleko azken bideojokoa; jende guztiaren ahotan dabil joko hori, baina Martin ezin da jolastu harik eta anaiak bukatu arte. Duela egun batzuetatik hona, Martinek lortzen duenerako ordenagailuaren aurrean esertzea, lagunak kalera jaisten diren ordua izaten da. Martin ez da lagunetara joaten, bideojokoa aritu ahal izateko. Taldea osatzen du berak aukeratutako jokalariekin, eta Europako zein mundu osoko txapelketetan hartzen du parte. Lagunek, inoiz edo behin, esan diote kalera jaisten ez denez, eurak joango direla etxera, denok elkarrekin jolasteko. Baina Martinek pentsatzen du etxera igotzen utziz gero, gurasoek jakingo dutela egunero aritzen dela ordenagailuaren aurrean, eta mauka bukatuko zaio. Gainera, apur bat gehiago ikasi behar duela uste du, lagunaren aurka jokatzen duenean irabazlea izan dadin. Martin gure lagunak egun askotxo pasa ditu horrela, eta bitxi samarra da egoera. Lagunetako batek ere esan dio, jolastera jaisten ez dela eta, "bereiztxo" dabilela.



ZER EGINGO ZENUKE?

Hiru jarduera hauetako zein aukeratuko zenuke larunbat arratsaldea pasatzeko, baldin eta edozein egiteko baimena badaukazu?:

- A.** Etxean geratuko nintzateke, lagunik onenarekin, kirola, musika edo bideojokoen inguruko web-orriak ikusten.
- B.** Lagunekin joango nintzateke norabait bizikletan, eta ogitartekoak eta freskagarriak eramango genituzke.
- C.** Arratsalde osoa pasako nuke bakarrik, utzi dizkidaten bideojokoekin jolasten: rally simulatzailea eta borrokako joko bat.

ZENBAIT DATU

Badirudi ohikoena dela Internetera inor gabe konektatzea, nahiz eta 9-11 urte bitarteko neskek gehiagotan konektatzen zaren neba-arrebekin gurasoekin baino. Edonola ere, bai, zure adinekoen artean, 10etik 4k gurasoekin batera nabigatzen dute sarri.

AHOLKUA

Ordenagailuan aritzean, eduki dezakegu beste norbaitekin gauden sentrazioa (*Messengerra*, bideojoko elkarreragileak...), baina errealitatea bestelakoa da. Bakarrik gaude. Lagunekin *Messengerraren* bidez komunikatzean edo sarean beste batzuen aurka jokatzeko dugunean, badirudi beste horiekin gaudela, baina bakarrik gaude.

Atrebentzia ez bada, iristen bazara nahiago izatera ordenagailua edo makina lagunaren konpainia baino, kezkarria izan daiteke. Horregatik eskaintzen dizkizugu honako aholku hauek:

Parteka ezazu informatikarekiko edo bideojokoekeko zaletasuna neba-arrebekin, gurasoekin, osaba-izebekin...

Batzuetan ikusiko duzu baduela abantailarik lagunekin txateatzea gurasoak alboan dituzula, konfiantza handiagoa izango baitute zuegan. Horregatik, bada, gonbida itzazu noizean behin zurekin harremanetan jartzera Interneten bidez.

5. kapitulua

“HARRAPATUTA” GERATZEKO ARRISKUA

PROTAGONISTAK

Arratsalde baten, Nerea tutoretza-lan bat aurkezten ari zen, eta gaia zen nahi ez ditugun gauzek “harrapatuta” geratzeko arriskua. Tutoreak hitzaldia egin zuen aurreko egunean gai horren inguruan, eta Nereari egokitu zitzaion aurkeztu behar izatea. Gurasoei galdetu zien eta Interneten bilatu zuen ea zer zen arriskutsua “harrapa” zaitzakeelako.

Horrenbestez, azalpen-egunean, hor ari zen Nerea ikaskideei esaten prestatuta zeuzkan hainbat esaldi, amarrua zeukatenak:

Hitz egin dezagun garbi: ez da gauza bera litxarreriek “harrapatuta” geratzea edo kolako freskagarriek “harrapatuta” geratzea, edo tabakoak “harrapatzea”, ezta?

Ez da gauza bera telebista ikusten “harrapatuta” geratzea 10 urte dituzula, norberagatik izango balitz ez genukeelako behin ere lokarri hori askatuko, edo era kontrolatuan ikustea, adibidez, ordu bat egunero; edo, ez da gauza bera joko bat erostea Interneten bidez, gurasoen baimena daukazula, edo 17 urte dituzula “harrapatuta” geratzea Interneten erosketak egiteko, gurasoen baimenik gabe.

Eta ez da gauza bera bideojokoetan “harrapatuta” egotea ordubetez, edo lau orduz egunero.

Tira, ba, batzuetan GAUZA BERA DA. “Harrapatuta” geratzeak horixe esan nahi du, zure kontrolpetik kanpo dagoela. Alegia, harrapatuta geratzen bazara, ezin duzu hortik ihes egin. HARRAPATU hitzak esan nahi du, drogez edo jokoaz ari garela, horren mendean zaudela. Eta mende bazaude, ez dago zure esku. (Nereak prestatuta eraman zituen hitz hauek, amak aholkatuta). Eta ezin baduzu ekidin, berdin dio ordubete telebista ikusten edo lau ordu lagunekin txateatzen izatea. Ezin baduzu ekidin, egin beharko zenituzkeen beste gauza batzuk egitea eragotziko dizu.

Gogoz txalotu zuten Nerea ikaskideek eta tutoreak, izan ere Nereak berak ere gogo handiz esan zituen hitzok.



ZER EGINGO ZENUKE?

Orain irudika dezagun egoera bat. Ondo ezaguna duzun lagun bat erabat "harrapatuta" dago bideojokoekin. Egun osoa eman ohi du horietan. Lagun horrek esaten dizunez, ezin omen dio utzi, jolasteari utzi bezain laster burura datorkion lehenengo gauza baita ea noiz izango duen aukera berriz ere jolasteko. Esku hartzeko eskatzen dizugu, eta honako hiru aukerok dituzu:

- A.** Saiatuko nintzateke konbentzitzen, jaitsi dadin kalera beste gauza batzuetara jolasten, baina ez badu nahi utzi egiten diot; jaitsiko da beste egunen batean.
- B.** Lagunarekin hitz egingo nuke jakinarazteko ezin duela horrela jarraitu, ezin dela egon arratsaldero berdin, eta ateratzen ez bada, "berezitxo" bat bihurtuko dela.
- C.** Utzi egingo nuke. Bere kontua da, eta gainera oso ondo pasatzen du, "harrapatuta" daukaten joko horiek oso dibertigarriak direlako.

ZENBAIT DATU

Datuek diotenez, ez da erraza sakelakotik hitz egitea edo konektatuta egotea norberak pentsatuta daukan denbora. Badakizu 11 urtetik gorako neska eta mutil erdiak ez direla gai kontrolatzeko sakelakoarekin edo interneten pasatzen duten denbora?

AHOLKUA

Eskuliburua erdialdera iritsi den honetan, konturatuko zinen zure bizitzan ari garela zertxobait "sartzen", eta horregatik emango dizkizugu zenbait aholku zuzen. Irakurri, beraz:

Zure adinean, ez da komeni gauez nabigatzea Interneten (eta bereziki, txat-geletan). Afaldu ondoren, 10 edo 11 urteko haurrek etxeko lanak bukatuta eduki beharko lituzkete eta atseden hartzen egon beharko lukete.

Oro har, gurasoekin batera eraiki beharko dituzu Interneten nabigatzeko arauak; ez zara saiatu behar interesatzen zaizun guztia lortzen, baina jakinaraz iezaiezu zein gauza egin nahiko zenukeen. Nereak zioenez, ordenagailua, sakelako telefonoa edo bideojokoak ez dira eragozpen izan behar zuretzat ezinbestekoak eta beharrezkoak diren beste gauza batzuk egiteko.

6. kapitulua

NIRE LEHENTASUNAK INTERNETEN EDO SAKELAKO TELEFONOAREKIN

PROTAGONISTAK

Ostiral goiz batez, atsedendian, hainbat neska eta mutil elkartu ziren Nereak eta Martinek ikasten duten ikastetxean. Talde horretan baziren Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.mailako neska-mutilak. Asteburuko planei buruz ziharduten. Gure bi protagonistak ere talde horretan zeuden, nahiz eta ikasmaita banatakoak izan. Solaskideek, poliki-poliki, Internet eta sakelako telefonoak hartu zituzten gaitzat.

Mutil gehienek nahiago zuten ordenagailua eta Internet erabili jolasteko; are gehiago, horietako batzuk lagunei kontatu zieten nola jaitsi modako jokoak. Neskek Internet zerabilten gauza bitxiei buruzko informazioa bilatzeko edo eskolako lanak egiteko, aurreko kapituluan ikusi genuen bezala. Baina guzti-guztiek zuten gustuko musika entzutea eta *youtuben* bideoak ikustea, nahiz eta gurasoek ez zieten guztiei uzten.

Martinek azaldu zuen nola sartzen zen *Messengerraren* bidez Imanol anaiaren lagunen solasaldietan, alegia, 15-16 urteko mutilen taldean. Esaten ari zenez, gauza dibertigarri askoren berri izan zuen, eta hitz egiten ere uzten zioten. Imanolen lagunei grazia egiten zien Martin elkarrizketa horietan izatea, eta zirikatu egiten zuten.

Baina Martin uste baino urrutirago joan zen, eta lagunei erakutsi zien zer egin behar zuten txat-gela horretan sartzeko. Imanol anaiaren helbidea eta pasahitza eman zien taldeko guztiei, bai eta eskatu ere elkarrizketa horietan ez parte hartzeko, bestela berarekin haserretuko zirela. Martinek ez zuen neurtu egindakoaren ondorioa noraino irits zitekeen, ezinezkoa baitzen 10 hurreko talde batean halakorik eskatu eta betetzea. Bakarren batek salatuko zuen, nahitaez. Baina hori eta Imanolek horren berri edukitzean Martini gertatu zitzaiona hurrengo kapitulu batean ikusiko dugu.



ZER EGINGO ZENUKE?

Aurrekoetan bezala, eskatuko dizugu har dezazun hiru aukeretako bat arratsaldea pasatzeko. Oraingoan, ordenagailua baino ez duzu izango:

- A.** Arratsalde osoa pasako nuke musika entzuten eta Internet bidez bideoak ikusten. Egiten jakingo banu, bideo barregarriren bat grabatu eta sarean zintzilikatuko nuke.
- B.** Eskolako lanak egiteko balio dezaketen web-orri interesgarrietara joko nuke. Gai bitxiak aurkituz gero, argazkiak edo erreportajeak grabatuko nituzke nire ordenagailuan.
- C.** Arratsalde osoa pasako nuke Messengerrean lagunekin. Gauza ederra izango litzateke ezezagunen bat agertzea gauza berriak kontatzeko.

ZENBAIT DATU

Errealitateak erakusten digunez, zuetako erdiek hitz egiten duzue sakelako telefonoaren, *Messengerraren...* bidez lagunekin, eta nahiz eta askori gustatzen zaizuen musika jaitea (%25ek horixe egiten duzue gehien), %30ek dio denbora gehien pasatzen duela eskolako lanak prestatzeko informazioa bilatzen.

AHOLKUA

Interneten edo sakelakoarekin egitea gustatzen zaizkigun gaietan sartuko gara. Aholkuek garbiak behar dute izan, alferrikako arriskurik ez hartzeko.

Lehenik eta behin, ez zaitez haserretu gurasoekin jakin nahi dutelako zertan ari zaren ordenagailuan eta, batez ere, Interneten. Orri batzuk ez dira egokiak zure adinerako, eta guztiak du zergatia, nahiz eta zugan jakin-mina piztu. Harremanei buruzko kapituluetan (7 eta 8) eta internet bidezko erosketei buruzkoan (9), horren inguruko informazio gehiago helaraziko dizugu.

Hala ere, eduki desatseginak, arriskutsuak edo, besterik gabe, bitxiak aurkitzen badituzu, ez zaitez saiatu gehiago “ikertzen” zeure kontura; esaiezu gurasoei edo helduren bati jarraitu aurretik. Ez ezazu ahatz beste jarduera batzuetan ere jo duzula guraso edo neba-arrebengana; Interneten ere lagun diezazukete, adibidez, zerbaiten inguruko informazioa aurkitu nahi baduzu.

Azkenik, eta askotan entzun baduzu ere, argi ibili jaisten dituzun edo lagunek ematen dizkizuten jokoan edukiarekin. Denak ez dira dibertigarriak; badira arriskutsuak eta bortitzak ere, eta, egia esan, ez duzu horiekin pasatuko ondoen.

7. kapitulua

BESTE BATZUEKIN NAGO HAREMANETAN

PROTAGONISTAK

Egun batean elkartu dira *Messengerrean* 5. eta 6. mailako 20 lagun baino gehiago. Nereak eta Martinek ere elkarrekin hitz egin dute; eskolan ez dute behin ere elkarrekin jardun, baina sarean ari direla, bien gustuko gai bat aurkitu dute, alegia, txakurrak. Hogei minututik gora aritu dira Nerearen setter irlandarrari buruz hitz egiten. Martin ere saiatu zen txakur bat edukitzen, baina ez zioten utzi. Esan dugunez, Nerearen txakurrari buruz aritu dira, baina baita katuei, zaldiei... buruz ere.

Martinen lagunetako batek baditu zaldiak, eta asteburuetan joaten zaie bisitan, edo pasioan ateratzen da. Nereak denei kontatu die nola lortu zuen txakurra edukitzea, zein gogorra den goizero-goizero ateratzea... baina merezi duela ere badio, egunero, etxeratzean, Putz txakurrak poz-pozik hartzen baitu, eta, gainera, zoragarria da.

Martinengan interesa piztu du elkarrizketak, eta txakurraren argazkia bidaltzeko eskatu dio Nereari. Argazki horietako bat aukeratu du sakelako telefonoaren pantailarako. Erabaki du gurasoak txakur bat erosteko konbentzitu behar dituela.

ZER EGINGO ZENUKE?

Ilmajina ezazu Martinen eta Nerearen egoeran zaudela eta gehiago hitz egin behar duzuela, jakiteko nola lortu duen Nereak gurasoak txakurra erosteko konbentzitzea, edo, besterik gabe, Nereari gertatzen zaion bezala, gai horren inguruan luzeago jardun nahi duzulako eta lagun bati lagundu nahi diozulako. Zer egingo zenuke?:

- A.** Uste duzu hobe izango dela biharamunean eskolan hitz egitea, baina lotsa sentituko duzula uste duzu.
- B.** Biharamunean, atsedendian, elkarrizketak jarraituko luke bien artean.
- C.** Biharamunean ez nuke berarekin hitz egingo, ez baitut nahi gelakideek ikustea. Kontu bat da *Messengerraren* bidez hitz egitea, eta beste bat, berriz, aurrez aurre.



ZENBAIT DATU

Ezin ditugu ukatu galdetegien emaitzak, baina kezka eragiten digu jakiteak 9-11 urteko neska-mutilek ordenagailua (posta, txata...) izatea nahien jendea ezagutzeko. Bigarren, sakelako telefonoa dago, eta, azkenik, parkean, kalean edo eskolan ikustea. Bitxia bada ere, emaitza hauek berdintsuak dira 17 urte bete arte.

AHOLKUA

Interneten txateatzeak badu abantailarik: batekin baino gehiagorekin aritu zaitezke aldi berean, pentsatzen duzuna lasai esan dezakezu, ez dizu inporta gutxi ezagutzen duzun jendearekin hitz egiteak, baina balioetsi beharko zenuke aurrez aurreko harremana ere, izan ere berehala esan dezakezu konta nahi duzuna, besteen erreakzioak ikus ditzakezu, gustatzen ote zaien, graziarik egiten ote dien.

Ordenagailuak, poliki-poliki, "jan" egiten zaitu, eta edozer egin dezakezun sentsazioa daukazunez, neska-mutil askok nahiago dute tresna hori lagunak baino. Baina hori gertatzen bazaizu, azkenerako isolatu egingo zaitu.

Ez dugu aholku gehiagorik emango kapitulu honetan, baina bai eskatuko dizugu hausnarketa egin dezazula, eta saia zaitezela bilatzen zer abantaila eduki dezakeen lagunekin aurrez aurre egoteak, sarearen bidez izan daitekeen harremanaren aldean. Idatz itzazu abantaila horiek hurrengo lerroetan:

8. kapitulua

USTEKABEKO MEZUA

PROTAGONISTAK

Larunbat arratsalde batean, Nerea konturatu da ezagutzen ez duen norbait konektatu dela Internetera; ez da bere lagunetako inor. Guillermo dela esan dio, eta berarekin hitz egiteko gonbitea ere egin dio. Nereak baimena eman dio eta delako Guillermo hori oso gauza dibertigarriak kontatzen hasi da; bai eta Nereak erantzun ere, ez baitu batere arriskurik sumatzen. Baina une batean konfiantza handiegia hartu du, eta argazki bitxi batzuk bidali dizkio. Argazkietan Guillermo hori dago, hondartza batean, neska batzuekin. Eta Nereari eskatu dio argazki bat bidal diezaion.

Gainera ematen du zaharragoa dela, 17 edo 18 urtekoa. Nereak aholkua eskatu die taldekideei. Susmagarria iruditu zaio argazkiak horren azkar bidaltzea. Baina, egia esan, batzuetan bidaltzen dizkiote elkarri argazki dibertigarriak, neskekin edo gelako mutilekin. Martini, adibidez, bidali zion argazki bat, eta hor azaltzen ziren Nerea eta bere txakurra. Hala ere, ez du Guillermo ezagutzen. Era guztietako erantzunak jaso ditu lagunengandik. Batzuek esan diote ez berriz ere erantzuteko, baina bakarren batek animatu du jarrai dezan Guillermo hori jatorra iruditu bazaio. Taldeko mutilen artean ere izan da erantzunik. Martinek ere erantzun nahi zion, baina eragozpen bat izan du eta ezin izan du parte hartu. Ikus dezagun.

Nereari hori gertatu zaion bitartean, Imanol ere, Martinen anaia, txateatzen ari da lagunekin. Planak egiten ari dira, biharamunerako, eskolarako; irakasleei buruz ari dira... eta, bat-batean, Alexek hartu du parte. Alex da gurasoek zigortu zuten hura, eskola-jazarpenerako bideoak ikusten ari zelako *youtuben*. Gogoratuko duzunez, Martinek gehiegi hitz egin zuen,



eta lagunei eman zien anaiaren helbidea eta pasahitza. Tira, bada, jarrai dezagun. Une horretan Martin Alexekin dago etxean eta esan dio horrelakorik ez egiteko, harrapatu egingo dituztelako. Baina, egia esan, ez du indar handirik jarri, eta, azkenean, zaharragoen elkarrizketan sartu dira. Beraz, Martin eta Alex aldi berean dira Nerearen taldekoekin, batetik, eta, bestetik, Imanolekin eta bere lagunekin. Baina Imanol konturatu egin da, eta, haserre bizioan, anaiari deitu dio sakelako telefonotik. Agindu dio etxera joateko berehala. Martinek, erabat izututa, esandakoa egin du, gainerako guztia utzita. Dagoeneko ez du gogoan Nerearen arazoa. Anaiak jenio bizia du, eta hobe da su gehiago ez ematea. Elkartu direnean, Imanolek txantajea egin dio: “edo joko guztiak ematen dizkidazu, edo gurasoei esango diet”, “jakina, Martin, ezingo duzu, bestelako agindurik jaso arte, aurrerantzean ordenagailua erabili”. Martinek onartu egin ditu baldintza guztiak, gurasoek jakingo duten beldur Martin amorratuta dago, azkenean ez baitu jakin Nereak zer egin behar zuen, eta, are gehiago, ezin izan dio iritzia eman, Alexen etxean bi elkarrizketatan aritu baitira aldi berean. Eta anaiak jakin duenez zertan ari zen, etxera joan behar izan du.

ZER EGINGO ZENUKE?

Mutil izan nahiz neska izan, Nereari laguntzeko eskatuko dizugu orain. Hau da, saia zaitetz bere lekuan jartzen; emaiozu aholkua eta pentsa ezazu berak egingo duela zuk gomendatutakoa:

- A.** Guillermo horri esango nioke mesedez ez argazkirik bidaltzeko, eta argi eduki dezala hitz egiten jarraitu behar badugu, ustekaberik gabe izan beharko dela.
- B.** Ezezagun horri esango nioke elkarrizketa bertan behera uzteko eta Nerea banintz gurasoei jakinaraziko nieke zer gertatu den.
- C.** Nire ustez ez da ezer ere gertatzen. Moztuko dut elkarrizketa zerbait konprometituagoa bidali edo eskatzen badit.

Inoiz gertatu al zaizu ezezagunen bat zurekin harremanetan jarri nahi izatea, edo ezagutzen duzu horrelakorik gertatu zaionik? Hala baldin bada, zehaztu ezazu:

Nori gertatu zitzaion?:

Zer gertatu zen?:

Nola jokatu zen?:

Zer ondorio izan zuen?:

Zer ikasi duzu egoera hartatik?:

ZENBAIT DATU

Ez da ohikoa zuen adinean jaso izana irainak, mehatxuak, argazki desatseginak edo drogen inguruko gaiak Interneten edo sakelako telefonoaren bidez, baina gero eta gehiago gertatuko zaizue hurrengo urteetan; hala adierazi dute, behintzat, 12 urtetik gorakoek. Hala ere, ohikoa da bilatu gabe ere gustatzen zaizkizun gauzei buruzko publizitatea jasotzea.

AHOLKUA

Kapitulu honetan planteatutako antzeko egoerak gertatzen dira errealitatean ere; agian zuri gertatu zaizkizu, edo, bestela, ziurrenik gertatuko zitzaizkion zuk ezagutzen duzun norbaiti. Nori ez diote telefonoz deitu produktu zoragarriren bat eskaintzeko?, galdetu al diozu zeure buruari ea zeinek eman dien zure telefonoa eta izena zerbait saltzeko deitu dizutenei?, edo, zergatik sartzen dira, bat-batean, ezezagunak *Messengerrean*?

Batzuetan horiek ez dira gertatzen norbaitek zure helbidea eman duelako; badira hainbat modu informazio hori eskuratzeko, tranpa eginda. Horregatik da garrantzitsua kontuan hartzea honako argibide hauek:

Ez erantzun mezu ezezagunei, ez Interneten bidez, ez eta sakelako telefonoaren bidez ere; ez badakizu nondik etorri den mezua eta fitxategiren bat badauka, ez ireki. Etxean zaudenean eta norbaitek atea jo eta ez badakizu nor den, ez diozu aterik irekitzen. Halaxe egin behar duzu sarean ere: “Ez ireki atea”.

Messengerrean nahastu egin gaitezke. Pentsa genezake lagunekin ari garela, eta agian ez dira lagunak. Halakoetan, adi egon sexu edukia dutenekin. Ez fidatu bilatu gabe iristen zaizun informazioarekin.

Eta, jakina, txateko lagunak batek zure edo zure familiaren ohiturei buruzko informazioa eskatzen badizu, jakinaraz iezaiezu gurasoei, edo, bestela, ez ezazu halako informaziorik eman. Bi kapitulu aurrerago hitz egingo dizugu sarean eman behar ez den informazioaren inguruan.

9. kapitulua

EROSKETA INTERNETEN BIDEZ

PROTAGONISTAK

Arratsalde batean, Martin gelako ohe gainean dago, kaskoak jantzita, musika entzuten. Bien bitartean anaia ordenagailuan konektatuta dago, eta Martin pantaila ikusten ari da. Halako batean, harrigarria iruditu zaion zerbait gertatu da. Erdi ezkutuan edo, anaia konturatu ez dadin, begiratzea erabaki du. *Messengerraren* kontu hura zela-eta, onartu zuen ordenagailua ez ukitzea. Kontua da ikusi duela guztien ahotan dabilen joko baten irudia; joko hori, baina, inork ez die gurasoei eskatzen, bortizkeria baita nagusi. Imanol buru-belarri ari da irakurtzen pantailan azaltzen dena, eta ez da konturatu ere egin anaia txikia ere begiratzen ari zaiola. Halako batean, honakoa irakurri du Martinek pantailan:

“jokoa jaisteko, sar ezazu zure kontu zenbakia”.



Berehala konturatu da anaiak jokoa erosi duela, eta harrigarria iruditu zaio aitaren izena tekleatzea, baita etxeko helbidea eta beste zenbait datu ere. Martinek ez daki anaia zuzen edo oker jokatzen ari den, baina anaiak kreditu-txartela atera eta zenbakiak tekleatu dituenean... Argi dago, txartela kendu dio aitari eta guztien hizpide den jokoa erosten ari da.

ZER EGINGO ZENUKE?

Lehen eskatu dizugu Nerearen tokian jartzeko. Orain Martinen tokian jartzeko eskatuko dizugu. Pentsa ezazu zuk aukeratutakoa egingo duela Martinek:

- A.** Gurasoei esango nieke, berehala, jakin dezaten zer gertatzen ari den.
- B.** Imanolekin hitz egingo nuke berehala, eta adieraziko nioke arriskutsua dela; badakit, hala ere, anaia nirekin haserretuko litzatekeela. Horrela lortzen ez badut, gurasoei esango nieke.
- C.** Jarraitzen utziko nioke, eta ikusi ea zer gertatzen den. Jokoa lortzen badu, neuk ere izango dut jolasteko aukera.

ZENBAIT DATU

Interneten bidez erostea gauza erreala da. 12-17 urte bitarteko hamar neska-mutiletik 3k edo 4k salerosketako katalogoetan begiratzen dute, baina gero oso gutxi erosten dute. Lehen esan dugunez, helduen erdiei baino gehiago iristen zaien nahi ez duten publizitatea.



AHOLKUA

Orain emango dizkizugun aholkuak zuzenak eta errazak dira. Bat egiten dute azken kapituluekin, alegia, datu pertsonalen inguruko kapituluekin. Aholkuek zerikusia dute planteatu dugun kasuarekin, eta aholkuek diotena eginez gero, hainbat une desatsegin ekidingo duzu:

Ez zaitetz behin ere sar zure edo zure gurasoen kreditu-txartelaren zenbakia, izena, helbidea edo telefonoa eskatzen duten tokietan.

Interneten bidez produkturen bat eskatu edo zerbait erosi behar baduzu, eska iezaezu gurasoei egin dezatela. Oso garrantzitsua da behin ere ez ematea zure daturik. Eta ez eman beste inorenik ere, arazo latzetan sar dezakezu eta.

10. kapitulua

NEUK ESANGO DUT NIRE DATUAK NORI EMAN

PROTAGONISTAK

Ezer baino lehen, gogora dezagun bi kapitulu atzerago Nereak erabaki bat hartu behar zuela eta azkenean halaxe egin zuen, nahiz eta Martin geroago jakin zuen. Argazkiak bidali zizkion tipo ezezagun harekiko komunikazioa eten zuen. Eta horixe aholkatu behar zion Martinek ere, baina ezin izan zuen. Martini ez zitzaion batere gustatzen kontu hura.

Une honetan, Nereak ama konbentzitu du utz diezaion harpidetzen aldizkari batera. Aldizkariak dakartza musika eta modaren inguruko berriak, pertsonalitate-testak eta horrelakoak. Amak lagundu dio aldizkariaren web-orrian sartzen, eta berak eman ditu harpidetzeko lehenengo urratsak. Prozesua bukatu dela uste duenean, gelatik atera da, eta han utzi du alaba kuxkuxean, aktore ezagunen berriak, modako musikarien ingurukoak... irakurtzen. Halako batean, baina, leihotxo bat ireki da: neskari eskatzen diote posta helbidea emateko, harpidetza berrestearren. Nereak lasai asko eman ditu datuak, pentsatu baitu datuak egiaztatzeko dela, eta orduan ez zaio iruditu amari deitu behar zionik. Ondoren, beste leiho bat azaldu zaio, eta dioenez, bidaliko dizkieten edukiak ziurtatzearen, zaletasunak zerrendatzeko eskatu diote. Nerea ez dago erabat ziur, baina idatzi du gustuko dituela animaliak, musika eta igeri egitea. Hurren, beste leiho bat, argazki bat eskatzeko, aukeratuz gero aldizkarian argitaratuko dutena.

Nereari egun batzuk lehenago ezezagunarekin gertatutakoa etorri zaio burura, eta ez du inongo asmorik argazkia bidaltzeko. Leiho guztiak itxi eta beste zeregin batzuei ekin die.


ZER EGINGO ZENUKE?

Irudika ezazu egoera hau. Zure gustuko futbol taldearen, edo atsegin duzun kirol baten (tenisa, formula 1, saskibaloia edo gimnasia erritmikoa) web-orrian sartu zara.

Datuak sartu behar dituzu, zure kirolari gustukoaren informazioa, argazkiak, bidal diezazkizutela nahi duzulako, eta taldeko bazkideen gunera sartzeko baimena lortu nahi duzulako. Ustez, doan da, baina jakin nahi dute zenbat jende konektatzen den, bai eta nongo jendeak duen interesa talde edo kirol jakin batean.

Gurasoekin zaude, eta haiek adierazi dizute eman ditzazula beharrezkotzat jotzen dituzun datuak. Ikus dezagun nola jokatuko zenukeen:

- A.** Izena, adina, bizi naizen herriaren izena emango nituzke, eta ez lidake inportako esatea zer gustatzen zaidan, aisiari buruzkoa baita.
- B.** Izena ,adina eta bizi naizen herriaren izena baino ez nituzke emango. Ez dute zertan jakin beste ezer.
- C.** Eskatutako informazio guztia emango nuke, bestela baliteke ez bidaltzea ni bilatzen ari naizena.



ZENBAIT DATU

Ikerketak adierazten digunez, zuetako gutxik ematen dituzue datuak Interneten bidez, oso gutxik bidaltzen dituzue argazkiak edo zuen posta helbidearen pasahitza.

Badakizue bereizten zein egoeratan ez duzuen informazio jakin bat eman behar, baina, harrigarria bada ere, zuetako askok eta askok hartzen duzue parte zozketa edo eskaintzatan, eta horrek ere badu arriskua.

AHOLKUA

Ez da gauza bera datu pertsonalak eman behar izatea gairen batean interesa eduki eta web-orri batean sartzean datuak eskatu dituztelako, edo bat-batean, horren bila ibili gabe ere, zerbait eskaintzeko datuak eskatzea Internetera konektatu zaudenean. Adibide bat jartzearren, gauza bat da telefonoz deitzea zerbait erosteko, eta oso bestelakoa, berriz, norbaitek zure telefonora deitzea zerbait eskaintzeko. Lehenengo kasuan fidatu daiteke, baina bigarreanean ez.

Baina, oro har, ez badakizu noiz diren, edo uste baduzu ez dela beharrezkoa, ez duzu zure daturik eman behar. Berehala jakingo duzu nork eskatzen dizkizun datuak asmo gaiztoz, ez baitizute esango zertarako nahi dituzten, ez dutelako esaten nor diren edo ez dutelako zure gurasoen baimenik eskatzen.

Ez zaitetz fidatu gauza gehiegi jakin nahi dutenekin. Ez ezazu zure buruari edo zure familiari buruzko informaziorik eman gurasoekin hitz egin gabe. Kontuz argazkiekin. Interneten argazki asko "zintzilikatzen" dituzte bertan azaltzen direnen baimenik eduki gabe, eta, zenbaitetan, ez da asmo onez egiten hori.

11. kapitulua

ARAZO BAT DAUKAGU

PROTAGONISTAK

Bederatzigarren kapituluan ikusi genuenez, Imanol joko bat erosten saiatu zen, ezin izan zuelako doan jaitsi. Azkenean, Martinek, beldurrez, ez zuen ezer ere esan, anaia zaharra haserretuz gero ez zuelako bakean utziko. Kontua da Imanolek, ikusita ezin zuela jokia jaitsi, lortu zuela eroste. Aitaren txartela lehengo tokian utzi zuen, hura konturatu gabe, eta Martinek izan ezik, beste inork ez zuen ezer jakin. Handik egun batzuetara egundokoa izan zen etxeko zalaparta. Faktura ikaragarri bat iritsi zen, eta inork ere ez zekien zeren kontura! Polizia ere etxera joan zen, aitak deitu baitzien. Bankukoek ezin zuten ezer ere argitu, Interneten bidez egindako erosketa baitzen, eta baimen guztiak ondo emanda zituen. Aitak susmoa zuen, eta semeei galdetu zien; azkenean, Imanolek egia esan zuen.

Ordenagailua erabiltzea debekatu zioten. Soilik erabil zezakeen larrialdiren batean, baina betiere aitaren eta amaren aurrean. Eta, noski, gelatik kendu zuten ordenagailua.

Eskuliburuaren hasieran esan genuenez, gure lagunek pasatu dituzten egoerak zuri ere gerta dakizkizuke. Pertsonaiak errealak izan litezke, gertatu zaizkienak gerta daitezkeelako. Ez dago abentura handirik sarean nabigatze hutsarekin, baina ikusi dugu argi ibili behar dela, zuzen nabigatu behar dela, bestela okerreko tokian buka dezakegulako.

Egia esan, inoiz edo behin helduen egoeretan jarri ditugu Nerea eta Martin; agian zaila da halakoren bat gertatzea 9, 10 edo 11 urterekin, baina ziurrenik izango duzu neba-arreba, lehengusu-lehengusina, lagun edo ezagunen bat halakorik bizi izan duenik, eta komenigarria da, gure ustez, jakitea nola jokatu behar den.

POLICIA



ZER EGINGO ZENUKE?

Planteatuko dizugun azken ariketa duzu hau, eta, horrexegatik, desberdina izatea nahi dugu. Oraingo honetan zeuk asmatu beharko duzu egoera eta izan litezkeen erantzunak. Gauza bat baino ez duzu pentsatu behar: besteei laguntzeko ariketa bat da.

Honakoa da kontua: saia zaitetz gogoratzen zuri edo ezagunen bat gertatu zaion egoeraren bat, saltsa eta zalaparta ederra eragin duena edo nahasmendutan sartu duena norbait, bai eman behar ez ziren datuak eman direlako, sarean argazkiren bat zintzilikatzeagatik, telefonoz ziria sartu diotelako, erosketaren batean iruzurra egin diotelako, bortizkeriaz , sexu-lizunkeriak edo arrazakeriaz betetako web orriren batean sartzeagatik, edo interesgarria irizten diozun beste edozergatik.

Egoera hori labur idatziko duzu, eta hiru irtenbide jarriko dituzu aukeran: A irtenbidea on samarra izango da, alegia, aukera horren alde egiten duena ez da gauzak gaizki egiten ari, baina hobeto egin litzake; B erantzuna izango da onena, irtenbide ideala. Hori aukeratzen duena oso ondo ari da egiten. Azkenik, C erantzuna irtenbide txarra izango da. Aukera horren aldekoak gaizki ari dira jokutzen.

Honakoa da egoera:

Niri edo nire honakoa gertatu zitzaidan/zitzaion:

.....

.....

.....

Orain, planteatu itzazu hiru aukera irtenbidea emateko eta adieraz ezazu, bene-benetan, zein aukeratuko zenukeen:

- A.** (hala-holako aukera)
- B.** (aukera ona)
- C.** (aukera txarra)

ZENBAIT DATU

Badakizu 12-14 urte bitarteko 10 neska-mutiletik 3k baino ez dakitela badirela erakunde batzuk gure datu pertsonalak zaintzen dituztenak? Badakigu baditugula eskubide batzuk, baina jakin behar dugu badela Lege bat gure eskubideak, obligazioak eta datu pertsonalen erabilera arautzen dituena.

Autoebaluazioa

Ondorengo taulan jaso ditzakezu ZER EGINGO ZENUKE? atalean emandako erantzun guztiak, eta puntuazioa ondorioztatu.

... .. kapituluan	zure entzuna izan bada	hona hemen lortu dituzun puntuak
1	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
2	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
3	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
4	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
5	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
6	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
7	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
8	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
9	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
10	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	
11	A = 2 puntu. B = 1 puntu. C = 3 puntu.	

LORTUTAKO PUNTUAK, GUZTIRA:
(gutxienez 11 puntu; gehienez 33 puntu)

Zure puntuazioa baldin bada:

11- 15 puntu bitartekoa: ez dituzu ia batere erabiltzen Informazioaren Teknologia (ordenagailuak, Internet, bideojokoak, sakelako telefonoa...) edo zuhur erabiltzen dituzu. Gaur egun ez daukazu arriskurik arazoak edukitzeko Teknologia horiek gaizki erabiltzeagatik.

16 - 21 puntu bitartekoa: Informazioaren Teknologia egoki erabiltzen dituzu. Ziurrenik badituzu arau batzuk onuragarriak direnak zuretzat eta etorkizunean pertsona gisa presta zaitezen.

22 - 27 puntu bitartekoa: batzuetan neurritz kanpo erabiltzen dituzu Informazioaren Teknologia. Arazoak eduki ditzakezu ez badituzu kontrolatzen gustatzen zaizkizun jarduerak edo horien erabilera.

28 - 33 puntu bitartekoa: ziurrenik Informazioaren Teknologiek harrapatuta zaude, eta hori arriskutsua da. Zure adinean, komeni da arau batzuk izatea erabiltzeko ordenagailua, Internet, bideojokoak edo sakelako telefonoa, eta iruditzen zait gaur egun ez duzula araurik.

9-11 urte bitarteko neska-mutilentzako aholkuen laburpena

Hurrengo lerroetan errepikatu egingo ditugu eskuliburuan zehar emandako hainbat aholku. Zure adineko ehunka laguni egindako galdetegian oinarrituta, gure ustez garrantzitsuenak direnak aukeratu ditugu. Antolatu ditugu egiten diezuen kasuaren arabera, eta nahiko genuke zerrendaren hasieran azaltzen direnak arreta handiz irakurtzea.

- Lehenetsi beharko zenuke aurrez aurreko harremana lagunekin, sareko edo sakelako telefonoaren bidezko harremanaren aldean.
- Ez duzu datu pertsonalik eman behar nori hartuko dituen jakin gabe edo ez baduzu beharrezkotzat jotzen.
- Teknologia ez dira txarrak, baina egiten dugun erabilera kaltegarria izan daiteke. Gure aisialdian, osasungarria da jarduera desberdinetan aritzea.
- Ez zaitetz gurasoekin haserretu ordenagailuan, eta, batez ere, Interneten, zer egiten duzun jakin nahi dutelako.
- Argi ibili jaisten dituzun edo lagunak ematen dizkizuten jokoen edukiarekin.
- Ez erantzun arrotzen mezuei, ez Interneten eta ez sakelako telefonoaren bidez ere. Kontuz ibili nahi ez duzun publizitatearekin: "ez ireki aterik".
- Produkturen bat eskatu behar baduzu edo erosketaren bat egin behar baduzu Interneten bidez, eska iezaiezu gurasoei berek egin dezatela. Oso garrantzitsua da zure edo bete inoren daturik behin ere ez ematea. Iskanbila ederra eragin dezakezu.
- Gurasoekin zaudela lagunekin nabigatzeak edo txateatzeak alde onak izan ditzake, gurasoek konfiantza handiagoa izango dute zuegan bakarrik egin nahi duzunerako.
- Egokiena izango litzateke gurasoekin batera adostea ordenagailuan edo sakelako telefonoan pasa behar duzun denbora. Eta ez zaitetz itsutu egunean ordubetez baino ezin zarelako ibili, adibidez.
- Oro har, gurasoekin batera eraiki beharko zenituzke Interneten nabigatzeko arauak.

Guraso, hezitzaile eta legezko tutoreentzako aholkuak

Eskuartean duzuen eskuliburua ikerketa luze baten ondorioa da. Hainbat erkidegotako zortzi mila ikasleri baino gehiagori egin diegu galdetegia. Eskuliburu hau 9 eta 11 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzendua; badira beste bi eskuliburu ere, 12-14 urte bitartekoentzat eta 15-17koentzat. Hiru eskuliburu horiek gida bat osatzen dute. Nahiko genuke interesgarriak eta lagungarriak izatea bai haurrentzat, bai hezitzaileentzat, eta, noski, familientzat ere.

Ondorengo lerroetan laburbilduta azalduko ditugu aurreko orrialdetan agertu diren hainbat aholku.

AHOLKU OROKORRAK

1. Oro har, komenigarria da ordenagailuak, bideojokoak, internet eta sakelako telefonoa erabiltzeko arauak eraikitzea, seme-alabekin adostuta.
2. Gai izan behar dugu Informazioaren Teknologien erabilera kontrolatzeko, gure seme-alaben maila berean, behintzat; eta halakorik ezin bada, saiatu beharko dugu oinarrizko ezagutza batzuk eskuratzen, lagun diezaiekegula nabaritu dezaten eta kontrolatzeko zer egiten duten.
3. Gure seme-alabek ordenagailua badute logelan, pantaila ikusgai egon beharko da sartzen den edonorentzat.
4. Seme-alabekin adostu ordenagailuaren edo sakelako telefonoaren erabilera-mugak, ikasketa orduetara egokituta betiere. Oso garrantzitsua da haurra ez egotea Interneten (batez ere txat-geletan) gauez.
5. Motibatu haurrak egin ditzaten bilaketak beren intereseko gaietan. Haurrekin batera nabigatu edo txateatu noizean behin, zuenganako konfiantza areagotze aldera.

INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN ERABILERAZ

6. Haur asko bideojokoen bidez sartzen dira Internetera. Baina, badakigu nolakoak diren bideojokoak eta horien edukiak? Badakigu nor “harrapatzen” duten? Gai hauetan arreta jarri behar dugu, eta komeni da haurrak joko horiek erabiltzen hasi aurretik jakitea nolakoak diren, bortizkeriara bultza dezaketen kantuen letrak entzuten ditugun bezalaxe. Informazioa edukitzea garrantzitsua da, eta gure seme-alabengandik hurbil egon behar dugu, jakin zer gustatzen zaien.
7. Neska-mutilekin maiz hitz egin behar da eta jakin sarean non ibili ohi diren, eta, edonola ere, kontrolatu zein orritan sartzen diren. Erabili babes-sistemak, haurrentzat desegokiak diren orrietan leku horietan sar ez daitezten.
8. Azaldu txat-gelek zein arrisku duten, uste baitezakete lagunekin ari direla eta horrela ez izatea; eta arreta berezia jarri sexua edo bortizkeria duten edukietan.
9. Arreta berezia jarri seme-alabek jaso, aldatu edo kopiatzen dituzten jokoetan. Denak ez dira dibertigarriak; badira arriskutsuak eta bortitzak direnak ere.
10. Erakutsi seme-alabei ez dutela produkturik eskatu behar familiaren baimenik gabe, eta kontrolatu telefonoaren fakturak.



DATU PERTSONALEZ

11. Erakutsi seme-alabei ez dutela eman behar daturik identifikatuko dituenik eta ez eskatzeko beste batzuk estatusunean jarriko dituzten datuak, adibidez, helbidea, telefonoa, ikasten ari diren ikastetxearen izena, eta, are gutxiago, beren irudiari buruzko datuak, argazkiak edo telefonoaren bidez egindako grabaketak, esaterako. Haurrak iritsi berriak dira, baina sarean bada eskarmentu handiko jendea, badakiena haurrak bereganatzen.
12. Ezin dira 14 urtetik beherakoen datuak erabili gurasoen baimenik gabe. Debehatuta dago adin txikikoa erabiltzea familiari buruzko datuak (diru-sarrerak, aisiarako lehentasunak edo ogibidea) lortzeko.
13. Jakin behar dugu badela eskubide eta obligazio horiek guztiak arautzen dituen Lege Organikoa: Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa. Horrez gain, bada zure autonomia erkidegoan dagokion legedia Datuen Babesaren inguruan, sorburu duena Autonomia Estatutua.
14. Azkenik, uste badugu adin txikikoen eskubideak urratu direla, salatu egin beharko dugu hurbilen duzun Datuak Babesteko Bulegoan. Horren harira, komeni da gure seme-alaben konfiantza areagotzea, ez ohikoak diren egoeren berri eman diezaguten.

CLI PROMETEO 2008-09 PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEEN ZERRENDA

ANDALUZIA

I.E.S. Aurantia	Almería
I.E.S. La Janda	Cádiz
I.E.S. Cárbula	Córdoba
I.E.S. Villanueva del Mar	Granada
I.E.S. Delgado Hernández	Huelva
I.E.S. Iulia Salaria	Jaén
I.E.S. Martín Rivero	Málaga
I.E.S. Néstor Almendros	Sevilla

KATALUNIA

C.E.I.P. Jacint Verdaguer	Barcelona
C.E.I.P. Pere Vila	Barcelona
Col·legi Lestonnac	Barcelona
Escola Thau	Barcelona
I.E.S. Salvador Espriu	Barcelona

EUSKADI

C.E.P. Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia LHI	Araba
C.E.P. Lateorro LHI	Araba
C.E.P. Atxondo LHI	Bizkaia
C.E.P. Barrutia LHI	Bizkaia
C.E.P. Derio LHI	Bizkaia
C.E.P. Maestro Zubeldia LHI	Bizkaia
C.E.P. San Gabriel LHI	Bizkaia
C.E.P. Urretxindorra LHI	Bizkaia
C.E.P. Velázquez-M.Cervantes LHI	Bizkaia
C.E.P. Zaldupe LHI	Bizkaia
I.E.S. Ategorri BHI	Bizkaia
I.E.S. Balmaseda BHI	Bizkaia
I.E.S. Barrutialde BHI	Bizkaia
I.E.S. Bengoetxe BHI	Bizkaia
I.E.S. Derio BHI	Bizkaia
C.E.P. Aitor Ikastola LHI	Gipuzkoa
C.E.P. Harri Berri Oleta LHI	Gipuzkoa
I.E.S. Egape Ikastola BHI	Gipuzkoa
I.E.S. Lezo BHI	Gipuzkoa

EXTREMADURA

C.E.I.P. Ntra. Sra. de La Caridad	Badajoz
Colegio Claret	Badajoz
I.E.S. Sáez de Buruaga	Badajoz
I.E.S. Tamujal	Badajoz
I.E.S.O. Vía Dalmacia	Cáceres

MADRID

Colegio Sagrado Corazón	Madrid
I.E.S. Cervantes	Madrid
I.E.S. Isabel La Católica	Madrid
I.E.S. José de Churriguera	Madrid
I.E.S. Prado de Santo Domingo	Madrid



Comisión
de Libertades
e Informática

C/ José Ortega y Gasset 77, 2ªA - 28006 Madrid

Tels. 914 023 204 · 915 237 566 · Fax 915 238 621

secretaria@asociacioncli.es · www.asociacioncli.es